

Patxi Lopez Lehendakaria jauna
Ajuria-Enea
Gasteiz

Lehendakari jauna:

Espainiako Gobernuak pentsioak eta lan-eskubideak izugarri murriztea proposatu du. Neurri guztietan ezagunena erretiro-adina atzeratzekoa da —65 urtetik 67 urtera—. Baina ez da bakarra. Pentsioen arloan murrizketa gehiago daude aurreikusita: pentsio berriak jaitea (adibidez, pentsioa kalkulatzekoan kontuan hartzen diren kotizazio-urteak gehiago izango dira); aurre-erretiroko legezko adina atzeratzea; alargun-pentsioak murriztea; eta aldi baterako ezintasunaren prestazioa txikiagotzea. Aldaketa guztiak bide beretik doaz: pentsioen sistema publikoaren bermeak moztu, eta prestazioak jasotzeko eskubideak kamustu.

Pentsioak murriztearekin batera, lan-erreforma gogorra iragarri dute, krisitik atera ahal izateko. Gobernuak kaleratzeak merkatu nahi ditu termino errealetan. Eta horretarako, Langileen Estatutuaren zenbait artikulua aldatuko ditu, helburu hauei begira: bidezko kaleratzeak errazago bihurtzea, edo enplegua sustatzeko kontratu mugagabea zabaltzea —bidegabeko kaleratzeagatik eman beharreko kalte-ordaina txikiagoa baita kontratu-mota horretan—, enpresen gogoko lan-malgutasuna areagotzea (mugikortasuna, ordutegiak...), negozioak kolektiboak zentralizatzea, eta ABLEen (ETT) edo enplegu-enpresa pribatuen zereginak zabaltzea.

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuok proposamen horiek guztiak erretiratzeko eskatzen dugu, bai pentsioenak, bai lan-erreformarenak. Zapateroren gobernuak hasieratik ezaugarriren bat izan badu, enpresarien eta botere ekonomikoaren aginduetara egotea izan da, eta orain langileoi ordainarazi nahi digu haiek sorturiko krisia.

Erreforma horiek agerian utzi dute gizarte-elkarriketaren faltsukeria. Gizarte-elkarriketa itxurakeria hutsa da, hortik enpresariak irabazle eta langileak galtzaile ateratzen dira. Inguruan gertatzen denari begiratu bat ematea besterik ez dago horretaz berehala konturatzeko; hemen, adibidez, Europako Batasuneko beste edozein tokitan baino askoz langile gehiago kaleratzen dira; gobernuen politikek, bestalde, aurrekontuak eta gizarte- zein lan-eskubideak murriztea dute helburu.

Guk uko egiten diegu horrelako murrizketei. Iazko maiatzaren 21eko greba orokorrera deitu genuen hartan ere esana genuen, bada, ezinbestekoa zela gobernuen politika neoliberalak eta antisozialak aldatzea. Ordutik hona ez da ezer aldatu, ez digute batere jaramonik egin, nahiz eta eskariarekin batera 131.894 herritarren sinadurak aurkeztu, eta orain are estuago hartu nahi dituzte gure eskubideak.

Aberastasunaren bidezko banaketa behar dugu, enplegu gehiago, lan-eskubideak ugariago, gizarte-babes zabalagoa, eta zerga-sistema zuzenagoa. Horiek dira gure eskariak. Era berean, pentsioen eta lan-eskubideen gaineko erabakiak Euskal Herrian bertan hartzeko eskatzen dugu; osterantzean, Estatu-mailan hartuz gero, kapitalaren Europatik ezarritako politiken ildotik hartuko dira, eta erabaki horien ondorioak geuk jasan beharko ditugu aurrerantzean ere.

Horregatik guztiagatik dei egiten diegu langileei eta, oro har, herritar guztiei mobilizazioetan parte hartzeko; baina, batez ere, martxoaren 27an, 17:30etan, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean egingo diren manifestazioetan.

Gasteizen, 2010eko Martxoaren 2an

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU